

MOZIOA, FORU ALDUNDIARI ESKATZEKO AUTOBUS ZERBITZUA INDARTU DEZALA

Aurrekariak

Astigarragak hiri arteko autobus zerbitzuarekin duen egoera txarra eta dituen gabezia larriak ez dira berriak. Tamalez, konponbide egoki eta iraunkorrik gabe jarraitzen dugu. Berri txarra hori da, berririk eza, Foru Aldundiaren erantzunik eza eta eraginkortasunik eza.

Biztanleria bikoitzu eta ia 8.000 biztanle dituen herria gara. Autobusa asko erabiltzen dugu (ikus Astigarragatik igarotzen diren lineen datuak eta alderatu Gipuzkoako edozein linearekin). Erabilera datuei erreparatuz gero, Gipuzkoako autobus zerbitzuen bidaiari kopurua 2022tik 2023ra %15 hazi zen eta Astigarragako autobus-zerbitzuena, berriz, %27. Astigarragako lineetan 2023an 1.477.750 bidaiari zenbatu zituzten. Garraio publikoz Hernanira eta Donostiako ekialdera joan gaitezke soilik, Urumearen ardatzean. Beste inora ez. Buruntzaldeko herri bakarra gara ospitalera eta unibertsitatera joateko linearik ez duena. Astigarragatik ospitalera 5 km daude.

Astigarrak autobus erabiltzeko apustua egiten badute eta egiten jarraitu nahi badute ere, autobus zerbitzua ez da nahikoa herritarren eskaerari erantzuteko. Gero eta maizago herritarrak autobusean ezin kabituta geltokian geratzen dira, hurrengo autobusari 20 edo 30 minutuz itxaronez. Egoera hori behin eta berriz ari da errepikatzen (bereziki astegunetan, goizeko eta arratseko lehen orduetan, larunbat arratsaldetan...) eta, horren earginez, herritar asko, kilometro bat ibiliz, herriko lehen autobus geltokiraino joan ohi dela autobusean sartzeko aukera izateko. Bada Martuteneraino dBuseko autobusak hartzera oinez joaten denik ere.

Astigarragan bizi dugun egoera ulertezina da: herritarrak garraio publikoa erabili behar eta nahi dute eta administrazioa ez da gai erantzun duin eta egoki bat emateko. Autobus nahikorik ez, maiztasun eskasa, ekipamendu publiko estrategiko eta oinarrizkoetara (ospitaleak eta unibertsitateak) iristeko ezintasuna... Eta, gainera, Astigarragaren bilakaera demografikoa ikusita, egoera urtez urte okerrera doa eta joango da.

Lurraldebusek eta Foru Aldundiak BU12 eta BU13 indartzeko neurriak hartu dituzte, bai, baina unean uneko konponbide laburrak dira. Neurri horiek hartu dituzte beti arazo handiak izan ondoren (jendea geltokian igo ezinik, Hernanitik beti autobusa oso beteta, Astigarragako jendea ia beti zutik, larria dena adineko pertsonen edo ezintasunen bat duten pertsonen kasuan...) eta herritarren eta Udalaren kexak jaso ondoren. Zerbitzua estuegi antolatuta dago eta gorabeherarik txikienarekin arazo handiak gertatzen dira: geltokian geratzea lekurik gabe, atzerapen handiak...

Azken urtebetean ikusi ahal izan dugu Lurraldebusek linea berriak jarri dituela kasu batzuetan eta beste batzuk nabarmen indartu. Pozten gara herri eta herritar horien zerbitzua hobetu delako. Askok poztzen gara. Aldi berean gu lehengo egoeran. Noizko Astigarragaren txanda? Ospitalera eta unibertsitatera joateko zerbitzua eskatzen ari gara. Egunero lanera edota ikastera doazen astigarrak autobus zerbitzu egokia edukitzea eskatzen ari gara, geltokian lekurik gabe geratu gabe. Onarrizko zerbitzua eskatzen ari gara. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Buruntzaldeko emakidaren kontratua 2031ko

ekainaren 30ean amaitzen da. Ordura arte itxaron behar dugu zerbitzu berriak jartzeko eta dauden zerbitzuak hobetzeko?

Astigarragako Udalak egindako urratsak

Hona hemen azken lau urteotan Udalak egin dituen urratsak, norberak ondorioak atera ditzan.

Urrats eta data hauen aurretik Astigarragako Udalak eta herritarrek hainbat urrats egin genituen (idatziak eta mozioak Aldundiari, sinadura bilketa, agerraldiak Batzar Nagusietan eta abar), 2019az geroztik.

2022-02-15ean, Donostiako Udalak eta Astigarragako Udalak idatzia aurkeztu genion Aldundiari, dBuseko linea batzuk luzatzeko aukera aztertzeari buruzko iritzia eskatuz eta gaia lantzeko prestutasunaz galdera eginez. Aldundiaren aldetik, erantzun garbirik ez.

2024-02-29 proposamena idatziz aurkeztu zuen Udalak, BU12 eta BU13 indartzeko eta ospitaleetara eta unibertsitateetara joateko dBuse-en 35. linea luzatzea aztertzeko, Donostiako Udalarekin landuta. Aldundiaren aldetik, erantzunik ez.

2024-05-23an bilera, Astigarragako Udaletxean, Mugikortasuneko Foru Diputatuak eta Astigarragako alkateak. Bilera horretan otsailean aurkeztutako proposamena ahoz azaldu zuen Udalak. Aldundiaren aldetik erabaki eta konpromisorik ez. Aztertzeotan geratu ziren.

2024-06-20an, Astigarragako alkateak idatzia Aldundiari, otsailean aurkeztutako proposamenari buruzko erantzun bat eskatuz. Erantzunik ez.

2024ko irailean, Aldundiak Udalari galdera tekniko batzuk egin zizkion, otsaileko idatziari buruzkoak. Udalak berehala erantzun zituen. Gainerakoan, Aldundiak erantzun eta erabakirik ez Udalaren proposamenari buruz. BU12 eta BU13an errefortzu batzuk jarri zituzten.

2024ko azaroa eta abenduan, bilera Aldundiaren egoitzan (eta mezuak eta bestelako harremanak), Mugikortasuneko Foru Diputatua eta Hernaniko eta Astigarragako alkateak. Aldundiak proposamena egin zuen, BU12 eta BU13aren arazoak kopontzeko autobus artikulatuak jarriko zirela esanez. Proposamen hori oraindik ez da gauzatu. Baina bestelako neurri iraunkorrik ere ez da ziurtatu.

2025-05-26an bilera Foru Aldundiko garraio-zuzendariarekin. Astigarragako Udalak ospitaleetako eta unibertsitateetako linearen gaia aztertzeko bilera egiteko hainbat eskari egin ostean, bilera egin zuten garraio-zuzendariak eta Astigarragako alkateak. Bilera horretan Udalak eskatu zuen Donostiako eta Astigarragako Udalekin batera Aldundiak lantalde bat sortzea gaia sakon aztertzeko. Aldundiaren erantzuna izan zen beste alternatiba batzuk ere aztertuko zituztela, besteak beste indarrean dauden lineen maitzasuna murriztea horrekin ospitale eta unibertsitateko linea probatzeko. Gaur 2025eko irailaren 18a da. Bilera hori egin zenetik ia 4 hilabete igaro dira eta ez dugu Aldundiaren erantzunik jaso. Bien bitartean, joan den maiatzetik gaur arte, hainbat aldiz astigarrak geltokian geratu dira lekurik gabe eta ospitaleetara eta unibertsitateetara

joateko linearik gabe jarraitzen dugu.

Aldundiak proposamen zehatz landurik ez

Aldundiari lehenegoz duela ia lau urte aurkeztu zion Astigarragako Udalak gai honi buruzko eskari idatzi landua. Lau urte beteko dira laster eta erantzun landu garbirik ez dugu jaso. Ez baiezkorik, ez ezezkorik...

Gogoan izan behar da hiri arteko garraioa eskaintzeko ardura, erantzukizuna eta eskumena Foru Aldundiarena dela (ez Udalarena). Tamalez, udalak proposamenak landu eta lankidetzarako erakutsi duen ahalegin eta gogogoak ez du ordainik eta erantzun eraginkorrik izan horren ardura duen Aldundiaren aldetik.

Mozioa

Horrenbestez, Astigarragako Udaleko Osoko Bilkurak hurrengo adierazi eta eskatzen du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Astigarraga zuzenean ospitaleekin eta unibertsitateekin lotuko duen autobus zerbitzua beranduenez 2026an martxan jartzeko, dBusen 35. linea luzatuz edota Lurraldebusen linea berri bat jarritz, betiere indarrean dauden Astigarragako lineetan inolako murrizketarik egin gabe.
2. Irtenbiderik egokiena eta ekonomikoena hori denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Donostiako dBus autobus konpainiaren 35. linea Astigarragara luzatu ahal izateko beharrezkoak diren azterketa juridiko, administratibo eta ekonomiko guztiak bideratzeko eta, horretarako, Donostiako Udala, Astigarragako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia bilduko dituen lan-mahaia deitzeko 2025. urtea amaitu aurretik.
3. Astigarragako Udalak konpromisoa hartzen du Donostiako dBus autobus konpainiaren 35. linea Astigarragara luzatzeko irtenbidean ekarpen ekonomikoa egiteko.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio BU13 zerbitzua indartzeko, hurrengo neurriak martxan jarritz:
 - a. BU13ren maiztasuna astean zehar 15 minutukoa izatea eta asteburuetan 20 minutukoa.
 - b. Zerbitzu gehigarri horiek ahal den neurrian Astigarragatik, Oialumetik bertatik, abiatzea.
 - c. BU13 linean autobus artikulatuak eskaintzea, batik bat ordu konplikatuenetan.
5. Gipuzkoako Batzar Nagusiei eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eska diezaiotela neurri hauek guztiak abian jartzeko.

MOCIÓN PARA INSTAR A LA DIPUTACIÓN A QUE REFUERCE EL SERVICIO DE AUTOBUSES

Antecedentes

No son nuevas las carencias y la grave situación de Astigarraga con el servicio de autobús interurbano. Lamentablemente seguimos sin una solución adecuada y duradera.

La mala noticia es ésta, la falta de noticias, la falta de respuesta de la Diputación Foral y la privación.

Somos un pueblo que ha duplicado su población doble y de casi 8.000 habitantes. El que hace mucho uso del autobús (Ver datos de las líneas que pasan por Astigarraga y comparar los datos de cualquier línea de Gipuzkoa). Si observamos los datos de uso, la cantidad de personas viajeras de los servicios de autobús de Gipuzkoa aumentó 15% de 2022 a 2023, la de los servicios de autobús de Astigarraga en cambio, aumentó 27%. En las líneas de Astigarraga se contabilizaron 1.477.750 personas viajeras en 2023. En transporte público podemos desplazarnos únicamente a Hernani y al este de Donostia, en el eje del Urumea. A ninguna otra parte. Somos el único pueblo de Buruntzaldea sin línea para ir al hospital y a la universidad. Desde Astigarraga al hospital hay 5 km.

Aunque las y los astigarrarras apuesten por utilizar el autobús y quieran seguir haciéndolo el servicio de autobús no es suficiente para atender la demanda de la ciudadanía. Cada vez con más frecuencia los y las astigarrarras se quedan en la parada sin poder caber en el autobús, esperando 20 o 30 minutos al autobús. Esta situación se está repitiendo una y otra vez (especialmente los días laborables, las primeras horas de la mañana y de la tarde, los sábados por la tarde...) y es por ello que muchos vecinos y vecinas caminan un kilómetro hasta la primera parada de autobús del pueblo para poder entrar en el autobús. Hay incluso quienes van a pie a Martutene para coger el autobús Dbus.

La situación que vivimos en Astigarraga es incomprensible: La ciudadanía deben y quieren utilizar el transporte público y la administración no es capaz de dar una respuesta digna y adecuada. Cantidad insuficiente de autobuses, escasa frecuencia, imposibilidad para acceder a equipamientos públicos estratégicos y básicos (hospitales y universidades)... Y, además, en Astigarraga a la vista de la evolución demográfica, la situación empeora y va a continuar empeorando año tras año.

Lurraldebus y la Diputación Foral han adoptado medidas para reforzar la BU12 y la BU13, pero son soluciones puntuales e insuficientes. Estas medidas siempre las han tomado después de grandes problemáticas (gente sin poder subir en la parada, siempre con el autobús lleno desde Hernani, la gente de Astigarraga casi siempre de pie, lo que es grave con personas mayores o con discapacidad...) y una vez recibidas las quejas de la ciudadanía y del Ayuntamiento. El servicio se organiza de forma excesivamente justa y con la menor incidencia se producen grandes problemas: quedarse en la parada sin espacio, retrasos importantes...

En el último año hemos podido comprobar que Lurraldebus ha puesto nuevas líneas y reforzado considerablemente otras. Nos alegramos de que estos pueblos y su ciudadanía hayan visto mejorado el servicio. Nos alegramos mucho. Al mismo tiempo nosotras/os en la misma situación. ¿Para cuándo el turno de Astigarraga? Estamos pidiendo un servicio para ir al hospital y a la universidad.

Que las y los astigarras que vayan a trabajar y/o estudiar diariamente dispongan de un servicio de autobús adecuado, sin quedarse en la parada sin poder entrar. Estamos solicitando un servicio básico. El contrato de la Diputación Foral de Gipuzkoa de concesión de Buruntzaldea finaliza el 30 de junio de 2031. ¿Tenemos que esperar hasta entonces para poner nuevos servicios y para mejorar los servicios existentes?

Pasos dados por el Ayuntamiento de Astigarraga

He aquí los pasos que ha dado el Ayuntamiento en los últimos cuatro años para que cada cual saque conclusiones.

Antes de estos pasos y fechas el Ayuntamiento y los vecinos y vecinas de Astigarraga han dado varios pasos (escritos y mociones a la Diputación, recogida de firmas, comparecencia en Juntas Generales, etc.), desde 2019.

El 15/02/2022 se presenta un escrito entre el Ayuntamiento de Donostia y el Ayuntamiento de Astigarraga a la Diputación, solicitando su opinión sobre el estudio de la posibilidad de prorrogar algunas líneas de dBus y preguntando sobre la disposición a trabajar este tema. Por parte de la Diputación, ninguna respuesta clara.

2024-02-29 La propuesta fue presentada por escrito por el Ayuntamiento para reforzar la BU12 y la BU13 y para estudiar la ampliación de la línea 35 de dBus a hospitales y universidades, elaborada con el Ayuntamiento de Donostia. Por parte de la Diputación, ninguna respuesta.

Reunión el 23-05-2024, en el Ayuntamiento de Astigarraga, entre la Diputada Foral de Movilidad y Alcalde de Astigarraga. El dicha reunión el Ayuntamiento expuso oralmente la propuesta presentada en febrero. Ninguna decisión ni compromiso por parte de la Diputación. Quedaron en estudiarlo.

Con fecha 2024-06-20, el Alcalde de Astigarraga remitió a la Diputación un escrito pidiendo una respuesta a la propuesta. Ninguna respuesta.

En septiembre de 2024, la Diputación formuló al Ayuntamiento una serie de preguntas técnicas relativas al escrito de febrero. El Ayuntamiento no tardó en responder. Por lo demás, la Diputación continuó sin responder sobre la propuesta del Ayuntamiento. Pusieron unos refuerzos en BU12 y BU13.

En noviembre y diciembre de 2024, reunión en la sede de la Diputación (mensajes y otro tipo de vías de contacto), la Diputada Foral de Movilidad y los Alcaldes de Hernani y Astigarraga. La Diputación hizo una propuesta para poner autobuses articulados para solucionar los problemas de la BU12 y la BU13. Esta propuesta aún no se ha materializado. Pero tampoco se han asegurado otras medidas de carácter permanente.

Reunión el 26-05-2025 con el Director de Transportes de la Diputación Foral. Después de varias peticiones de reunión del Ayuntamiento de Astigarraga para tratar el tema de la línea de hospitales y universidades se reunieron el Director de Transportes y el Alcalde de Astigarraga. En dicha reunión fue solicitada la creación de un grupo de trabajo entre los Ayuntamientos de Astigarraga y Donostia y la Diputación para estudiar en profundidad el tema. La respuesta de la Diputación fue que estudiarían también otras alternativas, entre ellas la de reducir la frecuencia de las líneas vigentes para probar la línea a hospitales y universidad. Hoy es el 18 de septiembre de 2025. Han pasado casi

4 meses desde esa reunión y no hemos recibido respuesta de la Diputación. Mientras tanto, desde el pasado mayo hasta hoy, en varias ocasiones las y los astigarras se han quedado en la parada sin poder subir al autobús por falta de espacio y continuamos sin línea para ir a los hospitales y universidades.

Sin propuestas concretas elaboradas por la Diputación

El Ayuntamiento de Astigarraga presentó por primera vez a la Diputación hace casi cuatro años una petición escrita elaborada de este tema. Pronto se cumplen cuatro años y no hemos recibido respuestas claras. Ni un sí, ni un no...

Hay que tener en cuenta la responsabilidad y la competencia de ofrecer el transporte interurbano es de la Diputación Foral (no del Ayuntamiento). Lamentablemente, el Ayuntamiento ha puesto su esfuerzo y dedicación en la elaboración de propuestas y en la cooperación, pero no ha sido recompensada por parte de la Diputación de quien es responsabilidad.

Moción

En consecuencia, el Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta y solicita:

1. Solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que Astigarraga sea conectada directamente con los hospitales y universidades con un servicio de autobús que ponga en marcha como muy tarde en 2026. Alargando la línea 35 de dBus o instalando una nueva línea de Lurraldebus, siempre y cuando no se restinga ninguna de las líneas vigentes de Astigarraga.
2. Siendo ésta la solución más adecuada y económica, se solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que realice los estudios jurídicos, administrativos y económicos necesarios ampliar hasta Astigarraga la línea 35 de la compañía de autobuses dBus de Donostia y para ello crear una mesa de trabajo que reunirá al Ayuntamiento de Donostia, Ayuntamiento de Astigarraga y Diputación Foral de Gipuzkoa antes de finalizar el 2025.
3. El Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a realizar una aportación económica en la solución de ampliar a Astigarraga la línea 35 de la compañía de autobús dBus de Donostia.
4. Solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa que refuerce el servicio BU13, mediante la puesta en marcha de las siguientes medidas:
 - a. Que la frecuencia de la BU13 sea de 15 minutos por la semana y 20 los fines de semana.
 - b. Que los servicios adicionales salgan, en la medida de lo posible, desde Astigarraga, Oialume.
 - c. Autobuses articulados en la línea BU13, principalmente en las horas más complicadas.
5. Insta a las Juntas Generales de Gipuzkoa a solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa que se pongan en marcha todas estas medidas.